



**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua,
Jose Antonio Campos jn.**

**Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
Juan Jose Arrizabalaga jn.**

Hemen atxekiturik doakizu Hizkuntza Ereduen birmoldaketa dela eta, Lakuan, 2007ko otsailaren 8an, Hezkuntza Sailak deituriko batzarrean STEE-EILASek eginiko proposamen idatzia.

*Adeitasunez, agur bero bat.
Belen Arrondo, STEE-EILASen izenean.*

Gasteiz, 2007ko otsailak 9.

EUSKARAREN NORMALKUNTZA LORTZEKO, HIZKUNTZ EREDUAK GAINDITU !!!

SARRERA

Gurea bezalako gizarte bateko hezkuntza-sistema propioak, luzaroan diglosia egoeran dagoen hizkuntza bat duenak, bermatu behar du ikasle guztientzako hizkuntza-gaitasun bera, euskara ondo menperatzea alegia. Horiek horrela, euskal hiritar guztien funtsezko eskubidea da euskaraz jakitea eta euskara komunikazio-tresna izatea hala eguneroko bizitzan nola irakaskuntzan, eta eskubide hori osoki eta pertsona guztiei bermatu behar die gure hezkuntza-sistemak.

Ilido berean, ondorio gisan esan daiteke ikasle guztien betebeharra dela derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan euskara erabiltzeko hizkuntza-gaitasun osoa izatea, ondorengo ikasketak euskaraz egin ahal izateko; horretarako, ezinbestekoa da bai hezkuntza-eskaintzaren planifikazioak eta bai bitarteko eta baliabide erabilgarriak hori ziurtatzea.

Era berean, gure gizarteko eta gure inguru hurbileko errealitatetik abiatuta, eleaniztasunak ere lehentasuna izan behar du gure hezkuntza-sisteman. Ez bakarrik lan-merkatuak hala eskatzen duelako, baizik eta, harantzago jota, egungo gizartearen hizkuntza-konplexutasunak eta konplexutasun etnikoak horretara bultzatzen gaituztelako, jakina, ahaztu gabe gure ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzak ere hor daudela, eta baita estatuko beste komunitate batzuetako hizkuntza ofizialak ere.

1. EGUNGO EGOERA

- 1.1 Dagoeneko **euskalduntze prozesuak 25 urte** eman ditu hizkuntza ereduen sistema ezarri zenetik **EAEn**. Esan beharra dago, alde batetik aurrera pauso izugarriak eman direla frankismoaren garaitik hona hezkuntza sistemaren euskalduntzean zein euskararen ezagutza mailan. Aipamen berezia merezi du urteotan irakaskuntzako langileok egindako esfortzua. Baina, bestetik, hutsuneak gero eta nabariagoak ageri dira, bi hizkuntza ofizialen **ezagutza, guztiz asimetrikoa** baita. Halaber, desoreka handia antzematen da ereduen eta sareen arabera. Egun, Hezkuntza Sistemak ez du bermatzen ikasle guztientzako hizkuntza-gaitasun bera.
- 1.2 Horretaz gain, hizkuntza ereduen sistema **segregatzailea** da eta hau ageriagoa da eskolak etorkinen erronkari aurre egin behar izan dionetik. Kohesio sozialak eta aukera berdintasunak eskatzen digute ereduen sistema desagitea. A ereduak ez du euskararen ezagutzarik bermatzen eta gainera bazterketa soziala laguntzen du. Izan ere, sare publikoko A ereduan nagusiki zailtasun sozial eta ekonomikoak dituzten ikasleak eskolatzen dira, baztertze-prozesuan murgilduta dauden ikasleentzako ghetto modukoa bilakatuz. Hain zuzen ere, Hezkuntza Sistemak ezin du ezberdintasuna suspertu, ez ideologikoa, ez sozio ekonomikoa, ezta linguistikoa ere.

- 1.3 Izan ere, derrigorrezko eskolatzea amaitzerakoan, ikasle ugari dira euskararen ezagutza eskasa eta erabilpena are eta traketsagoa adierazten dutenak. Begi bistakoa da, **B ereduko zenbait kasutan zein A ereduko kasu gehienetan legeekiko iruzur baten aurrean gaudela.**
- 1.4 **Iruzur legala** egiten ari gara hainbat gazte belaunaldiei 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen arabera, baita 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera. (Ikus 2005ean ISEIk aurkezturiko B2 ikerketa).

2. GURE PROPOSAMENA

- 2.1 **Eredurik ez, eredu bakarra ere ez.** “Eredu” hitza bera ere **ezabatu** egin beharko litzateke, nahasketa eta mamurik ere egon ez daitezen.
- 2.2 Izan ere, eta aurreko hamarkadetan izan dituen alde positiboak ahaztu gabe, bada garaia hizkuntz ereduaren sistema zatikatzailea gaindituz, tokian tokiko hizkuntz egoera aztertu eta gero, ikastetxeetan eratutako euskararen normalkuntza plan eraginkorrak abian jartzeko, non murgiltze prozesu malguak ezarriz, ikaslearen **euskara gaitasuna bermatua** izan behar duen –ahoz nahiz idatziz, erregistro formal nahiz informalean- **derrigorrezko eskolatzea burutu ondoren.** (B1 erabiltzaile autonomoa Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta B2 erabiltzaile gaitua DBH 4. mailan).
- 2.3 **Ikastetxeak Hizkuntza Normalkuntza plan** bana egin behar du. Horretarako, ikastetxearen, ikasle bakoitzaren eta bere inguru familiar eta sozialaren hizkuntza errealitate zehatza kontuan hartu behar da lehenik, eta hortik abiatuta kasu bakoitzari dagozkion neurriak hartu. Mota askotarikoak izango dira, denak helburu berbera euskaraz jakin dezatela, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza-gaitasun osoa izan dezatela. Eta bitarteko horiek handiagoak izango dira nahitaez euskararen egoera soziolinguistiko okerragoko zonetan kokatutako ikastetxeetan. Horrez gain, ziurtatu beharra dago plan horien jarraipena eta ebaluazio zuzena. Ildo honetan, Hezkuntza Sailak argi adierazi behar ditu lehen hezkuntzako eta zikloetako minimoak zeintzuk diren.
- 2.4 **Hizkuntza Politika Integral baten beharra dago.** Erakundeen arteko Plan bat eratu behar da **euskararen erabilera sustatzeko.** Euskararen ezagutzan urrats handiak eman diren arren, ezin da gauza bera esan erabilerari buruz. Hau dela eta, azken boladan kezka areagotuz joan da. Arazo honi aurre egiteko egitasmo zehatzak sustatu behar dira, bai Ikastetxeetako Normalkuntza Planetatik (esaterako, hizkuntza arloko curriculum bateratua, hizkuntzen trataera instrumentala), baita irakaskuntzaz kanpoko erakundeetatik ere, besteen artean, udaletxeek ardura berezia dutelarik.

Hala nola, ikasleen inguru hurbilean ekimen erakargarriak antolatuz (eskola orduz kanpoko saioetan, auzo nahiz herrietako ekitaldietan, ...), aisialdian hizkuntza formala (eskola hizkuntza) alde batera utziz, haur nahiz gazteen

interesguneetara irudimenez hurbilduz, kalitatezko hizkuntza eskainiz... Hizkuntza transmisioan familiek duten arduraz jabetzeko kanpainak ...

Azken batean, euskararen erabilera ahalbideratuko duten egoera komunikatibo erakargarri eta egiazkoak sortzea da helburua, hortxe dago gakoa. Ahalegin honetan **euskararen aldeko “neurri positiboak”** guztiz beharrezkoak dira.

Euskararen normalkuntza jendarteak hartu behar du bere gain, eskolak soilik ezin du. Hizkuntza transmisioa egun eskolarena da ehuneko handi batean, baina argi dago ez dela nahikoa. Hizkuntza erregistro informala gehienbat kalean eta jendartean ikasten da.

- 2.5 **Epe eta erritmo zehatzak finkatu.** Aldaketa horiek guztiak ezinbestekoak dira epe egoki baten barruan ematea, egoerak lehenbailehen konponbidea behar duelako. Beti ere lauzpabost urteren buruan guztiz ezarrita egon beharko luke Derrigorrezko Ikasmailetan eta inola ere ez, urtez urteko erritmoan (hamabost bat urtetan).
- 2.6 **Ikastetxe guztietako langileek** (irakasle zein ez irakasle) **elebidunak izan beharko dute ahalik eta epe laburrenean** eta behar diren bitartekoak jarri beharko dira langileok euskaraz behar bezala gaitzeko; bai eta irakasleen, material didaktikoaren eta gainerako langileen hizkuntza-eguneratzea etengabea eta egokia izateko ere. Izan ere, Administrazioaren ardurapean indarrean jarri behar diren neurriek Hezkuntza Sistema osoari (ikasmailak, sareak, ...) eragin behar diote ezinbestean, zeharkako kontua baita.

3. NEURRI ZEHATZAK

Arestian aipaturiko helburu horietarako bitarteko guztiak jarri beharko dira, besteak beste:

- 3.1 **Legedia aldatu** (Euskararen Normalkuntzarako Legea 1982, Hizkuntza eredu (A, B eta D) Dekretua 1983, Euskal Eskola Publikoaren Legea 1993, Hizkuntza eskakizunen Dekretua 1993, ...).
- 3.2 **Ikastetxeko Normalkuntza Planak eratu.** Horretarako helburuak, giza baliabideak, ordu kredituak, orientabideak, ebaluaketa irizpideak eta abar bideratu behar ditu Hezkuntza Sailak.
- 3.3 **Hizkuntzen trataera bateratuak garatu** Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuetan.
- 3.4 **Metodologia Komunikatiboan oinarritu** euskara zein beste hizkuntzen irakaskuntza. Ahozkotasanari garrantzi gehiago eman eta ahozko adierazpenari ordu kopuru jakina eskaini, erregistro ezberdinak landuz.
- 3.5 **Irakasle kopurua handitu:** Euskarazko saioretarako ratioak egokitu, talde malguak, bikoizketak, irakasle laguntzaileak, ...

- 3.6 **Baliabide gehiago jarri** euskararen egoera soziolinguistiko okerragoko zonetan kokatutako ikastetxeetan (Bizkaiko ezker aldean, Araban, ...).
- 3.7 **Ikasle etorkinen integratzea sustatu:** euskara eta gure herriko kulturara hurbiltzeko bideak erraztu (irakasleak, materialak, ...).
- 3.8 **Euskararen salbuespen egoerarik ez** ikasle etorkin zein bestekoentzat, bai, ordea, ezinbesteko egokitzapenak, adina eta egoeraren arabera.
- 3.9 **Etengabeko prestakuntza sustatu** irakasle zein ez irakasleentzat. Irakasleen kasuan gaitasun linguistikoaz gain, prestakuntza metodologikoa ere areagotuz.
- 3.10 **Irakasle zein ez irakasle berriei elebitasuna eskatu** aurrerantzean, Hezkuntza Sistemarako sarbide unean, bai sare publikoan bai itunpeko ikastetxeetan ere. Aldi berean, elebidunak ez diren eta lanean diharduten langileak euskalduntzeko baliabideak indartu beharko lirake.
- 3.11 **Derrigorrezkoak ez diren ikasketetan ere eragin:** Lanbide Heziketan, Helduen Hezkuntzan, Musika Kontserbatorioetan, ...
- 3.12 **Erakundeen arteko Plana eratu**, eskolaz kanpoko ekintzetan, kirolean, aisialdian, komunikabideetan, ... euskararen erabilera sustatzeko.
- 3.13 **Plan horien guztien jarraipena eta ebaluazioa** –bertako zein kanpoko ebaluaketa frogak- ziurtatu beharra dago.
- 3.14 **Epe eta erritmo zehatzak finkatu.** Lauzpabost urtetan guztiz ezarrita.
- 3.15 **Aurrekontu Plan Berezia osatu** neurri hauek guztiak finantzatu eta bideragarriak izan daitezzen.

***Helburu zehatzak finkatu, neurri trinkoak hartu eta
epe laburrean ezarri behar dira!
Autonomia eta malgutasuna bai, baina itxurakeriarik ez !***

Donostia, 2007ko otsailaren 7a.

STEE-EILASeko Hezkuntza Politika Batzordea